

AZALPENA:

Piktograma poetikoaren kontzeptuan oinarriturik, neska-mutikoei zuzenduriko kartoizko liburuak dira *Ilargian kulunkantari* bildumakoak. Errima eta erritmoa duten ikus-poema errezitagarriak dira.

Liburu bakoitza poema oso bat da eta tradiziozko kantutegiaren bitarteko poetikoak erabiltzen ditu: oihartzunak, errimak, onomatopeiak, anaforak...

Liburu bakoitza –poema bakoitza, alegia– proposamen irudimentsu eta originala da, gozatzeko eta ondo pasatzeko modukoa.

SAIOEN HELBURUAK ETA DINAMIKA:

- Saio praktikoetan egingo da.
 - 8 liburuak ezagutzera emango dira:
 - BOST liburuan, esaterako, batetik bostera bitarteko zenbakiak ageri dira; KROKODILOA liburuan koloreak;
 - MIAU liburuan hurbileko animaliak.
 - Ilargi magikoa ILARGIAN.
 - Musika-tresnak nagusi dira BIOLINAN.
 - Oinetakoen koloreak eta formak ZAPATAN.
 - Mahaia txukun atontzeko eraz ari da PAPERTXORIA.
 - Eguneroko objektuak ageri dira ARBOLAN
- Zer egin liburu bildumatxo honekin?
 - *Ilargian kulunkantari* bilduma osatzen duten liburutxoaren ezaugarri nagusien inguruko aipamen laburra egingo da, guztia kokatze aldera.
 - Liburu bakoitzaren egitura hain da erreza, ezen edozeinek egokitu baitiezaioke kantatzeko melodia. Hartara, oinarri hori aintzat, kasuan kasuko doinua irakatsiko da, baina bestelako doinu-proposamenak sortzen ere arituko gara jolas giroan.
 - Doinua eta liburuaren piktogramak gertu izanda, haurren aurrean liburuok egokiro nola erabili, nola kantatu, haurrengan nola eragin eta nola gozarazi erakutsiko da saioan.